

IGELAK ERREGE ESKATZEN.¹



Abere mot bakoitzak,
 Lengo denboretan,
 Erregea bazuten
 Toki guzietan.
 Gabetanika zeuden
 Igelak bakarrik,
 Zeren ozta ziraden
 Irteten loietik,
 Eta ez da atsegin,
 Naiz izan errege,
 Bizitza loipean
 Andik irten bage.
 Igel gaiñoak zeuden
 Arras lotsaturik,
 Iñork ez zielako
 Egiten kasorik.
 Biltzen dira guziak
 Beren batzarrean,
 Eta diote, gunzen
 Jartzera aurrean
 Jupiter andiari,
 Eta esatera,
 Jauna, gatoz zugana
 Errege eskatzera;
 Abere mot bakoitzak
 Izanik berea,

Guk ere nai genduke
 Albalitz gurea.
 Jupiterrek, mugituz
 Noizik bein burua,
 Aditu omen zien
 Beren erregea,
 Far irria egiñaz,
 Zeren ez zekiten
 Igel choriburuak
 Zer eskatzen zuten:
 Bada bizi ziraden
 Elkarren artean,
 Kantatu eta josta,
 Ederki pakean.
 Esan omen zioten
 Beren Jaungoikoak,
 Ez zaitzeltela izan
 Arren ain choroak;
 Zeren ez da munduan
 Zori onagorik,
 Nola dan bizitza
 Buru gabetanik.
 Badezute non bizi,
 Zer jana, pakea,
 ¿Zertako nai dezute
 Orain erregea?

(1) Samaniego-ren ipuia euskerara itzulia.

Gaiztoak bear dute,
 Ez dago dudarik,
 Elkar ill ez dezaten
 Buru gabetanik,
 Baña izanik ona
 Zuen familia,
 ¿Zér deabrutarako
 Du agintaria?
 Jauna, eranzun zuten,
 Badute besteak,
 Eta lotsatzen gaitu
 Guk ez izateak;
 Ez gera guchiago
 Noski ayek baño;
 Lotsarik asko izan
 Degu oraindaño.
 Ori orrela bada,
 Dio Jupiterrek,
 Faltarik ez dizute
 Egingo erregek.
 Au esan ondorean,
 Orra non batetan
 Zerutik zingirara
 Zerbait erortzen dan,
 Ematen duelarik
 Alako kolpea,
 Non galtzen duten arras
 Igelak kordea.
 Piška bana ikara
 Pasa ondorean,
 Eta ezaguera
 Etorri zanean,
 Lasterka an dijoaz
 Sartzera lenbaitlen;
 Guchienaz kana bi,
 Loiean barrenen.
 Zortzi egun ayetan
 Ez zan bat bakarrik

Loietik irtetera
 Atrebitzen zanik.
 Noiz bait irteten da bat,
 Eta dio, *tat, tat,*
 Erregetzat diagu
 Egur puska andi bat.
 Ikusi zutenean
 Ziola egia,
 ¡Nork esan aien lotsa
 Ta errabia!
 Badijoaz lasterka
 Jupiterren billa,
 Eta esaten diote:
 Jauna, esker milla;
 Gaur bidaldu diguzun
 Errege prestua,
 Da itsua ta gorra,
 Gañera mutua:
 Beste bat nai genuke
 Ernaia, bizia,
 Jendiari agintzen
 Ongi ikasia.
 Zoazte ortika, zoazte,
 Die eranzuten,
 Berdin ez dakizute
 Zer darabilzuten.
 Bidaltzen die bada
 Beste erregea,
 Zeña zan amar kana
 Luze zan sugea.
 Zingiran sartu eta
 Asi zan batetan,
 Igelai jarraika,
 Arrapa eta jan.
 An dijoaz igesi
 Bera eta gora,
 Batzuek loi azpira,
 Besteak kanpora.

Madarikatzen dute	Ongi geran orduan,
Guztiak errege,	Obeto nai degu,
Obeto ziralako	Galdu ta gero ona
Agintari bage.	Ezagutzen degu;
Onela oi dirade	Baña nola orduan
Choroen kontuak,	Ez degun prochurik,
Ez die farra gaizki	Ez oi zaigu gelditzen
Egiten munduak.	Damua besterik.

EL MAS ANTIGUO VOCABULARIO DEL VASCUENCE.



INTRODUCCION.

Con el título *The early Basque vocabulary* ha publicado la revista inglesa *The Academy*, dos cartas del eminente filósofo y maestro en la Universidad de Oxford Mr. Wentworth Wébbster, cuya traducción hemos hecho, abrigando la confianza de que en nuestra pátria las investigaciones eruditas sobre el bascuence, que se deben á los sábios extranjeros, serán acogidas con el mismo favor é interés que ellos muestran en seguir el curso de las que hacen incesantemente los españoles.

El espíritu moderno—ha dicho el Sr. Cánovas del Castillo—tiempo há que emplea los medios poderosísimos de que hoy dispone, para conseguir que esa raza singular que así defiende de las armas sus montes, como su lengua de las ideas extrañas, rinda y entregue, cuando ménos, á la curiosidad insaciable de la época, el secreto de su origen, de sus primeras conexiones, de sus mezclas sucesivas durante los largos siglos transcurridos, hasta que reparó de repente el mundo en el fenómeno de su existencia.¹

(1) Prólogo al libro del Sr. Rodríguez Ferrer *Los Vascongados, su país, su lengua y el Príncipe L. L. Bonaparte*.